

2022-2023 ikasturtea

**ESKIZOFRENIA GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONEK  
TRATAMENDUAREKIKO ATXIKIMENDUA HOBETZEKO OSASUN  
HEZKUNTZA PROGRAMA**

Noah Nafarrate Santiago



## **LABURPENA**

**Sarrera:** Eskizofrenia gaixotasun mentala da, pentsamenduan, portaeran, emozioetan eta errealitatea ikusteko moduan du eragina. Oro har, eskizofrenia, gaixotasun mentalen artean, psikosizat hartzen da. Hau jasaten dutenek errealitatearen eta pentsamenduak eta gaixotasunak eragindako pertzepzioen artean bereizteko zailtasunak izan ditzakete. Gaixotasun honen ezaugarri nagusia tratamenduarekiko atxikidurarik eza da. Honek suposatzen dituen kostu sozial, osasun eta ekonomiko larriak eta ospitaletik kanpoko eremuan ikusten den hutsune handia dela eta, Eskizofrenia diagnostikoa duten pertsonen zuzendutako Osasun Hezkuntza Programa egitea ezinbestekoa dela ikusi da.

**Helburuak:** Gradu Amaierako Lanaren helburu nagusia, Eskizofrenia diagnostikoa duten pertsonentzat tratamenduarekiko duten atxikimendua hobetzeko Osasun Hezkuntza Programa bat diseinatzea da. Helburu nagusia lortzeko asmoz, helburu zehatzak planteatu dira.

**Metodologia:** Proiektuaren helburu nagusiari erantzuteko, hainbat datu iturri erabili dira. Batetik, bilaketa bibliografikoa burutu da osasun arloko datu-base ezberdinak kontsultatuz: Pubmed, Dialnet, Medes eta Cuiden. Horiez gain, Biblioteca Virtual en Salud (BVS) metabilatzailea ere erabili da. Gainera, Medikuntza eta Erizaintza fakultateko liburutegian topatutako bi liburu kontsultatu dira. Bestalde, munduko, Euskadi eta Espainiako webgune ofizialetan, aldizkarietan eta elkarteetan informazio gehigarria bilatu da.

**Garapena:** Eskizofrenia duten pertsonen zuzenduriko Osasun Hezkuntza Programak, pairatzen duten gaixotasuna ezagutzea, honen onspena lantzea eta tratamenduarekiko duten atxikipena hobetzea du helburu. Horretarako bederatzi saiotako programa garatu da, non helburua lortzeko hainbat jarduera metodologiko diseinatu diren. 2 erizainek gidatuko dituzte. Programa, Amarako Osasun Zentroan gauzatuko da eta lau aste iraungo du.

**Ebaluazioa:** Osasun Hezkuntza Programaren ebaluazioa egiteaz 2 erizainak arduratuko dira eta programaren prozesu osoan zehar gauzatuko da. Halaber, proiektuaren

amaieran, programaren egitura, prozesua eta talde dianaren ezagutzak ebaluatzeko, ebaluazio orokor bat burutuko da.

**Ekarpen eta gogoeta pertsonala:** Lan honen bidez gizartean hain estigmatizaturik dagoen gaixotasunari ikusgarritasuna eman eta pertsona hauen birgizarteratzea erraztea bultzatu nahi da. Pertsona hauek tratamendua modu egokian jarraitzeko dituzten zailtasun eta arrisku faktoreei aurre egiteko estrategiak eskaintzea ezinbestekoa ikusten da. Horretarako, Osasun Hezkuntza Programa egokia izan daitekeela pentsatu dut.

**Hitz gakoak:**

“Eskizofrenia”, “medikazioarekiko atxikimendua”, “osasun heziketa”.



## AURKIBIDEA

1. <b>Sarrera</b> .....	7
1.1. Eskizofrenia gaixotasunaren inguruko osasun hezkuntza proiektuaren justifikazioa.....	7
1.1.1. Eskizofrenia gaixotasunaren tamaina .....	8
1.1.2. Eskizofrenia gaixotasunaren garrantzia .....	9
1.1.3. Eskizofrenia gaixotasunaren urrakortasuna .....	10
1.1.4. Eskizofreniak gizartean suposatzen duen kostua .....	11
1.1.5. Eskizofreniaren arrisku faktoreak.....	11
1.2. Xede-taldearen aukeraketa eta justifikazioa.....	13
2. <b>Helburuak</b> .....	14
2.1. Helburu nagusia.....	14
2.2. Helburu zehatzak .....	14
3. <b>Metodologia</b> .....	15
4. <b>Plangintza</b> .....	17
4.1. Xede taldeak lortu beharreko helburu pedagogikoak .....	17
4.1.1. Helburu nagusia .....	17
4.1.2. Bigarren mailako helburuak .....	17
4.2. Metodologia pedagogikoak .....	18
4.3. Jarduera pedagogikoak.....	19
5. <b>Baliabideak</b> .....	29
6. <b>Ebaluazioa</b> .....	33
7. <b>Ekarpen Pertsonala</b> .....	34
8. <b>Bibliografia</b> .....	35

## TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula: PIO/PICO egitura.....	15
2. Taula: Berrikusketan egiteko barneratze eta kanporatze irizpideak .....	16
3. Taula: lehen saioan landuko diren jarduerak.....	20
4. Taula: lehen saioaren ondoren bidaliko diren etxerako ariketak.....	20
5. Taula: bigarren saioan landuko diren jarduerak .....	21
6. Taula: hirugarren saioan landuko diren jarduerak.....	22
7. Taula: laugarren saioan landuko diren jarduerak .....	23
8. Taula: bostgarren saioan landuko diren jarduerak.....	24
9. Taula: seigarren saioan landuko diren jarduerak .....	25
10. Taula: zazpigarren saioan landuko diren jarduerak .....	26
11. Taula: zortzigarren saioan landuko diren jarduerak .....	27
12. Taula: Proiektua aurrera eramateko beharrezkoak diren baliabideak.....	29
13. Taula: PIO egituraren oinarritutako terminologiaren taula. ....	40
14. Taula Datu baseetako bilaketa estrategia .....	41
15. Taula: Datu baseetako bilaketa estrategia .....	42
16. Taula: Eskizofrenian Inpresio Kliniko Orokorraren Eskala.....	63
17. Taula: Lawton eta Brody eskala. EBJI (Eguneroko Bizitzako Jarduera Instrumentalak) .....	64
18. Taula: MATE (Medikazioari Atxikitze Txostenaren Eskala) .....	72
19. Taula: BJI (Botikarekiko Jarreraren Inbentarioa).....	73
20. Taula: Prozesuaren eta baliabide egituren atalak ebaluatzeko galdetegia .....	87
21. Taula: Prozesu eta baliabide egituren atalak ebaluatzeko galdetegia. ....	89
22. Taula: Talde dianak lortu dituen gaitasunak ebaluatzeko galdetegia .....	91

## IRUDIEN AURKIBIDEA

<b>1. Irudia:</b> BDCAP 2017. urtean argitaratutako eskizofreniaren prebalentzia Espainian. ....	38
<b>2. Irudia:</b> BDCAP 2017. urtean argitaratutako eskizofreniaren prebalentzia Espainian. ....	39
<b>3. Irudia:</b> Amarako osasun zentroko sarreran jarriko den kartela. ....	51
<b>4. Irudia:</b> Esku orria.....	52
<b>5. Irudia:</b> Post-itak.....	65
<b>6. Irudia:</b> Pilula kaxa. ....	77
<b>7. Irudia:</b> “Pilula-kaxa berrerabilgarri bat prestatzeko aholkuak” .....	79
<b>8. Irudia:</b> Eskulanaren emaitzak.....	86



## 1. Sarrera

### 1.1. Eskizofrenia gaixotasunaren inguruko osasun hezkuntza proiektuaren justifikazioa

Urtetan zehar osasunaren hainbat definizio ezagutu dira. Azken aldiz, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) “osasun” kontzeptuaren hurrengo definizioa eskaini zuen: osasuna erabateko ongizate fisiko, mental eta soziala da, eta ez bakarrik gaitzik edo gaixotasunik eza (1). Honi erreparatuz, gizartean hain estigmatizatua dagoen osasun mentala gure bizitzan eragin handia izan dezakeen faktore oso garrantzitsua dela ikus dezakegu. Buru nahasteen munduan murgilduz, OME-k eskizofrenia gaixotasuna “Ezgaitasunaren Araberako Bizi-Urteak” (EABU) zazpigarren arrazoi nagusia dela dio (2).

Eskizofrenia gaixotasun mentala da, alegia, pentsamenduan, portaeran, emozioetan eta errealitatea ikusteko moduan du eragina. Oro har, eskizofrenia, gaixotasun mentalen artean, psikosizat hartzen da. Psikosi hitzak konnotazio negatiboak izaten ditu, baina hura jasaten dutenek errealitatearen eta pentsamenduen edo ideien eta gaixotasunak eragindako pertzepzioen artean bereizteko zailtasunak izan ditzaketela baino ez du esan nahi. Larri eta kronikoa bezala klasifikatzen da, arazo garrantzitsuak eta iraunkorrak ekar diezazkieke gaixotasuna jasaten duten pertsonari, baina bakoitzarengan eragina oso bestelakoa izan daiteke (3). Eskizofreniaren bilakaera klinikoa maiz gertatzen den gertaera akutuetako bat da, eta gizarte-ongizatearen, bokazio ongizatearen eta ongizate pertsonalaren narriadura kronikoa eragiten du (4).

Gaixotasun honek hainbat sintoma biltzen ditu:

- **Sintoma positiboak:** sintoma horiek psikosi eskizofrenikoaren berezkoak diren sintomak dira. Haluzinazioak eta delirio ideiak (paranoiak, erreferentzia ideiak, handitasun ideiak, somatikoak eta erlijioarekin zerikusia dutenak) ezagutzen dira nagusiki.
- **Sintoma negatiboak:** horrela izendatzen dira, aldeztatik eskuratutako ahalmenak galtzearen ondorioz. Hala nola, narriadura emozionala, narriadura motibatzailea eta hizkeraren pobretzea edo alogia.
- **Nahaste sintomak:** pentsaera nahasteak nahiz portaera nahasteak bereizten dira.

- **Depresio eta angustia sintomak:** trastorno depresiboaren sintomak nabarmentzen dira. Hauek, lehen diagnostikoa jasotze aldian eta gaixotasunaren larriagotze uneetan agertzen dira gehien bat.
- **Sintoma kognitiboak:** hiru sintoma aurki ditzakegu; arreta mantentzeko zailtasuna, laneko memoria (epe motzeko memoriaren galera) eta funtzio exekutiboak (ingurumenari erantzuteko eta egokitzeko zailtasuna) (5).

Tratamendu integralaren helburu nagusia sintomatologia gutxitzea da, modu honetan gaixoaren eta familiaren bizi-kalitatea hobetuz, haren integrazio sozio-laborala hobetzeko aukerak gora egingo dute. Hala ere, eskizofrenia beraren ezaugarriek, besteak beste, gaixotasunaren kontzientzia ezak, zaildu egiten dute pazienteak tratamendu psikofarmakoekiko duen atxikimendua bermatzea. Horrek gaixotasunaren bilakaera okerra du ondorio. Hori dela eta, berrospitaleratzeak, narriadura pertsonal eta soziala, neke soziofamiliarra etab. garatzeko arriskuak areagotzen dira (6).

### 1.1.1. Eskizofrenia gaixotasunaren tamaina

OMEk dioenez eskizofreniak mundu osoan 24 milioi pertsonari eragiten die, hau da, 300 pertsonatik bati (%0,32). Helduetan, tasa 222 pertsonatik lekoa da (%0,45). Ez da beste buruko nahasmendu asko bezain arrunta, baina gaixotasun larritzat ezagutzen da. Ohikoena nerabezaroaren amaieran edo 20 eta 30 urte bitartean agertzea da(7).

Dimentsioak piska bat mugatuz, ikus dezakegu Espainian azken aldiz 2017an egindako azterketan erreparatuz, honako emaitzak lortu dira:

- Espainiako populazio totalaren %7,4ak eskizofrenia gaixotasuna pairatzen zuen 2017an.
- Gaixotasuna gizonezkoetan emakumezkoetan baino maizago ematen zen: gizonezkoak %4,5 eta emakumezkoak %2,9 izanik (8).

Ikus dezakegun moduan, gaixotasuna jasateko gizonezkoek duten prebalentzia, handiagoa da emakumezkoena baino. Gizonezkoek 10 urteko hasiera goiztiarrago bat erakusten dute emakumezkoekin alderatuta (6). Bestalde, arau hau apurtu egiten da adinak gora egiten duelarik. Izan ere, 65 urtetik gora emaitzak erregulatuz doaz, eta sexu bien arteko diferentzia ikusezina bihurtzen da. Gutxi balitz, azken urteetan

gaixotasunaren prebalentziak bilakaera negatiboa izan da nazio mailan. 2013-2017 urte bitartean gizonezko nahiz emakumezkoen grafikek gora egin zuten. Zehazki %0,9 gizonezko gehiago diagnostikatu ziren gaixotasunaz 2017an, eta %0,5 emakumezko (8) (Ikusi 1 eta 2 eranskinak).

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2019an jasotako datuek diotenez, gaixotasun honek populazio helduaren %0,7-1 ingururi eragiten dio bizitzan osoan zehar. Honen arabera, Euskadin 15.000-20.000 bitarteko lagunek jasoko dute diagnostiko hori haien bizitzan zehar. Hala ere, eskizofrenia mundu osoan nahiz kultura ezberdinetan eboluzio bera erakusten duen gaixotasuna kontsideratzen da (3).

2020. urtean, EAEn, osasun mentalen artean, izandako ospitalizazio arrazoi nagusiak eskizofrenia eta gaixotasun eskizotipikoak izan ziren. Guztira 2.325 pertsona ingresatu ziren unitate akutuan, erdi-maila egonaldiko ospitale eta epe luzeko ospitale psikiatrikoen artean (9).

### **1.1.2. Eskizofrenia gaixotasunaren garrantzia**

Gaur egun, mundu mailan, eskizofrenia duten pertsona gehienek ez dute osasun mentaleko laguntzarik jasotzen. Ospitale psikiatrikoetan ingresaturik dauden pertsonen %50 eskizofrenia diagnostikatu zaie noizbait. Hala ere, psikosia duten pertsonen %31,3k baino ez du jasotzen osasun mental espezializatuaren arreta. Gutxi balitz, osasun mentalaren zerbitzuari eskaintzen zaizkion baliabide gehienak ez dira modu eraginkorrean inbertitzen ospitale psikiatrikoek emandako arretan (7).

Bestalde, eskizofrenia duten pertsonen %50-90,4k ez dute tratamendu egokia betetzen. Horrek porrot terapeutikoak, gaixotasunaren larriagotzeak, ospitalizazio tasen igoera eta errehabilitazio-neurrien frustrazioa eragiten ditu. Gaixotzeari lotutako faktoreei buruzko ikerketek adierazten dutenez, tratamendua erabat edo hein batean uztea, faktore iragarlerik garrantzitsuena da, eta berriz berrerortzea jasateko arriskua bost aldiz handiagoa bihurtzen du, tratamendua jarraitzen duten gaixoekin alderatuta (10,11).

Gainera, buruaz beste egiteko aukerak areagotu egiten dira gaixotasunaren berrerortzeak gertatzen diren heinean. Suizidioa da eskizofrenia duten pertsonen heriotza goiztiarraren arrazoi nagusia. %25-%55 inguru bere buruaz beste egiten saiatuko da bizitzan zehar,

nahiz eta saiakeren %50 eta %80k artean ez duen heriotzarik izango. Suizidioaren eragina populazio orokorrarena baino 10-70 aldiz handiagoa da pertsona hauetan (6).

Gaixotasun hau pairatzen duten pertsonak 2 edo 3 aldiz aukera handiagoa dute biztanleria orokorrak baino garaiz aurretik hiltzeko, sarritan gaixotasun fisikoengatik, hala nola gaixotasun kardiobaskularrengatik, metabolikoengatik edo infekzioengatik.

Sarritan pertsona hauen giza eskubideak urratuta ikusten dira, bai osasun mentaleko erakundeetan, bai komunitatean. Gaitz hori duten pertsonen kontrako estigma bizia eta orokorra da, bazterketa soziala eragiten du eta besteekiko harremanei eragiten die, bereziki senideekin eta lagunekin. Horrek bereizkeria eragiten du, eta, aldi berean, laguntza mediko orokorra, hezkuntza, etxebizitza eta enplegua mugatu ditzake.

Hauk direla eta, ezinbestekoa da tratamendua hartzeko ohitura izatea. Hala nola, aldi egonkorretan arazo guzti hauen intzidentzia nabarmenki jaisten da eta modu autonomoan kalitatezko bizitza jarraitzeko aukerek gora egiten dute (7).

### **1.1.3. Eskizofrenia gaixotasunaren urrakortasuna**

Zehazki, urrakortasunak, profesionalek promozio, babes, prebentzio eta/edo errehabilitazio neurriekin, arazoa gutxitzeko duten gaitasunari egiten dio erreferentzia. Gaixotasun honek erakusten duen psikofarmakoekiko atxikidura faltak beharrezkoa bihurtzen du prebentzio-programen sorkuntza, gizarteko sozializatzaile guztiekin lan eginez: gaixoekin, familiarekin, komunitatearekin... tratamendua betetzea sustatzeko helburuarekin.

Eskizofrenia duen populazioak mantentze-tratamendua behar du, horretarako botika antipsikotikoetaz eta terapia psikosozialaz baliatzen dira osasun agenteak. Modu honetan, sintomen kontrola mantentzen da. Aurretik esan bezala, botiken betetze maila apala delarik, gaixotasunaren eboluzioa txarra izango da, gaixoaren bizi kalitatea okertuz. Hezitzaile eta aholkulari gisa, tresna partekatuak erabiliz, erizain psikiatrikoek bezeroekin lan egin dezakete atxikidura eta bestelako emaitzak hobetzeko eta erabakiak hartzeko teknikak lantzeko. Teknika eta tresna horiek bezeroak inplikatu eta gaitzen dituzte haien tratamenduari buruzko erabakietan aktiboki parte hartzeko (12).

Erizainek maiz izaten dute harreman luze eta errepikaria bezeroekin. Hau horrela izanik, zeregin garrantzitsua dute medikazioaren jarraipena hobetzeko, bezeroekin elkarlanean aritu oztopoak identifikatzen eta bezeroekin, familiakoekin eta arreta medikuko beste hornitzaile batzuekin. Modu honetan medikazioaren jarraipena hobetzeko estrategia eraginkorrak identifikatzen dira. Funtsezko zeregina izan dezakete medikazioaren jarraipenaren garrantzia azaltzean, eta ez-betetzeen zantzuak atzematen lehenak izaten. Ebidentzian oinarritutako esku-hartze psikosozialen adibideetan honako hauek sartzen dira: gaixotasunen autokontrola, kasuen erabilera/tratamendu komunitario asertiboa (TKA), trebetasun sozialen entrenamendua (SST), familiako eta gaixoen psikohezkuntza eta laguntzako enplegua (12).

#### **1.1.4. Eskizofreniak gizartean suposatzen duen kostua**

Eskizofreniak galera ekonomikoak ere dakartza. Ikerketa kuasiesperimental batetik lortutako informazioaren arabera, Europan, 2007. urtean, barne-produktu gordinaren %3 eta %4 artean gastatu zela kalkulatu da, urteko 182.000 milioi eurotik gora. Horietatik %46 produktibitate-galerak eragindako zeharkako gastuei dagokie, eta gastu horiek lan-eritasunari lotuta daude funtsean (8). Espainia mailan berriz, 2020 eta 2021 urte bitartean Osasun eta Kontsumo Ministeritzak 924 milioi euro inbertitu zituen osasun mentaleko ospitaleetan eta desintoxikazio zentroetan.

Azkenik, EAEn Osakidetzak eskaintako fakturazio txostenak dioenez, 2021. urtean modu honetan banatu zituen eskizofrenia gaixotasuna duten pertsona bakoitzak suposatu zituen gastuak (13):

- 1 motako larritasuneko eskizofrenia duten pertsonetan: 3.872 euro.
- 2 motako larritasuneko eskizofrenia duten pertsonetan: 4.286 euro.
- 3 motako larritasuneko eskizofrenia duten pertsonetan: 6.195 euro.
- 4 motako larritasuneko eskizofrenia duten pertsonetan: 111.422 euro (13).

#### **1.1.5. Eskizofreniaren arrisku faktoreak**

Eskizofreniaren kausak aurkitzeko eta/edo justifikatzeko ahalegin ugari egin diren arren, gaur egun ez dago horren faktore etiopatogeniakoei buruzko adostasunik. Psikiatriaren

historian zehar, babes handiagoa edo txikiagoa duten zenbait hipotesi eta teoria postulatu dituzte ikertzaileek. Kotsentsua bilatu nahian, gehiengoak hau ondorioztatu du: metagarriak diren hainbat arrisku-faktoreen efektua dela eskizofrenia. Besteak beste, familia eta ingurumen arlokoak diren faktoreak, hauek pertsonak estresarekiko kaltebera bihurtzen baikaitu. Beraz hainbat teoriak diotenez, gene eta ingurumeneko faktore hauek metatuz doaz behin gaixotasuna esnatzen den arte (5).

“Esquizofrenia, del Caos Mental a la Esperanza” eta “Trastornos psicoticos” liburuetan, hau jasateko arriskua handitzen duten hainbat faktore bildu dira (5):

- **Faktore genetikoak:** nahasmenduaren oinordetza-tasa %80koa da, eta arriskua areagotu egiten da, familiarengandik hurbilago egon edo afektatutako ahaideen kopurua handiagoa izan ahala. Eskizofreniaren fenotipoa faktore genetikoaren eta ingurumen-faktoreen arteko interakzioari dagokio; izan ere, ez aldagai genetikoak ez ingurumen-aldagaiak, berez, ez dira aski gaixotasuna esnatzeko.
- **Faktore biriko eta obstetrikokoak:** Hainbat ikerketa epidemiologikoen agerian uzten dute haurdunaldian (errubeola eta gripea) gaixotasuna pairatzearen eta psikosia izateko arriskuaren arteko harremana.
- **Faktore neuro degeneratiboak:** hipotesi honek, gaixotasuna ematen den unean, garunean endekapenezko fenomenoren bat gertatzen dela defendatzen du. Fenomeno hori pazienteen narriadura intelektual eta afektiboaren eragilea, edo gizarte- eta lan-funtzionamendua aldatzearen eragilea izango litzateke.
- **Alterazio kimikoak:** aurkitutako alterazio kimikoa neuronen arteko komunikazio-arazoa da. Dopamina asaldatuta dago gaixotasun hori duten pertsonengan. Zenbait ikerketak erakutsi dutenez, sintoma psikotikoak dituzten uneetan neurotransmisore honen baloreak aldatzen dira, dopamina kantitatea handituz. Hau horrela izanik, ezin da ziurtatu dopamina baloreen alterazioa dela gaixotasuna agertzearen arrazoa, eta are gutxiago jakin zein den igoera horren arrazoa.

Azken urteetan, ikusi da dopaminaz gain, beste bi neurotransmisoreetan duela eragina gaixotasun honek, besteak beste, serotoninan eta glutamatoan. Neurotransmisore hauen hainbat prozesutan alterazioak eragiten ditu gaixotasun honek (5).

- **Sustantzia psikoaktiboen eta kanabioideen kontsumoa:** Aldez aurretik gaixotasuna garatzeko beste arrisku-faktore batzuk jasaten dituzten pertsonetan, horrelako sustantzien kontsumoak arrisku hori esponentzialki areagotzen du. Hau da, substantzia hauen kontsumoak asaldura sor lezake gaixotasuna isilean egon beharrea. Bestalde, dagoeneko diagnostikatuta dauden pertsonetan, horrelako substantziaren kontsumoak gertakari psikiko berri baten agertzea eragin dezake (6).

## **1.2. Xede-taldearen aukeraketa eta justifikazioa**

Amarako osasun zentroan, osasun mentalaren unitatean jarraipena daramaten eta gaixotasunaren fase egonkorrean dauden 18-25 urte bitarteko pertsona eskizofrenikoek osatuko dute Osasun-Hezkuntza Programa honen xede-taldea.

Pertsona horiek gizarte-isolamendu handia eta gizarte-harremanak ezartzeko zailtasunak dituzte. Horregatik, beharrezkoa da elkartasun-lotura leku komuna izatea, hala nola Amarako osasun zentroa, non profesional trebatuek autolaguntzako taldeak sustatu, animatu eta sortzen lagunduko duten (14).

Gaixotasunaren lehen manifestazio urteak gaztaroan hasi eta 30 urte arte luzatzen delarik, gaixotasunaren hasierako faseetatik saiatuko gara tratamenduarekiko atxikidura lantzen. Izan ere, gaixotasunaren fase hauetan erakusten duten narriadura kognitiboa ez da adin helduagoetan bezain adierazgarria.

Bestalde, garrantzitsua izango da pertsona gaixotasunaren larriagotze-egoeran ez egotea. Haluzinazioak, eldarniozko ideiak, paranoiak, kontzentrazio ezak etab. pazientearen errealitatean sartu eta saioaren dinamikan eragina izan dezake (14).

Azkenik, toxikoen menpekotasunarekiko abstinentzian, 6 hilabeteko denboraz, dauden pazienteak izango dira. Abstinentzia sintomek ekitaldi, saio eta jarduera ezberdinetan parte hartzeko gaitasuna murrizten baitute. Gainera, drogen menpekotasunak gaixotasunaren larriagotze arazo nagusien artean sailkatzen delarik gaixoa ez litzateke estabilizazio fase batean aurkituko (13).

Aipatutakoa kontuan hartuta, gaixoek duten tratamendu psikofarmakoarekiko atxikipena lantzea beharrezkotzat hartzen da haren garapen psikosozialarekin aurrera jarraitzeko. Gaixotasunarekin bizi diren pertsonen bizitzak aldaketa asko jasango ditu, bere ingurune sozial eta laboralak bereziki. Izan ere, ezingo dute esperientzia sozial askorik garatu gizartean mantentzen den estigma soziala dela eta. Hala ere, haien gaixotasunarekin bizikidetzan jarraitu beharko dute. Horretarako, Osasun-Hezkuntza Programa hau sortu nahi da gaixoekin tratamenduarekiko atxikipena lantzeko eta prozesua amaituta, haien bizitza sozial eta lan egoera ahal bezain kalitate onenarekin eramanez.

## **2. Helburuak**

### **2.1. Helburu nagusia**

Amarako osasun zentroan, osasun mentalaren unitatean jarraipena daramaten eta gaixotasunaren fase egonkorrean dauden 18-25 urte bitarteko pertsona eskizofrenikoek psikofarmakoen tratamenduarekiko duten atxikipena hobetzeko Osasun-Hezkuntza Programa bat diseinatzea.

### **2.2. Helburu zehatzak**

- Xede taldeak lortu beharreko helburu nagusiak eta bigarren mailako helburuak identifikatzea eta formulatzea.
- Hezkuntza edukiak lantzea.
- Erabilitako metodologia deskribatzea.
- Osasun-Hezkuntza aurrera eramateko beharrezkoak izango diren giza- eta material-baliabideak identifikatzea.
- Saioen kronograma egitea.
- Baliabide ezberdinen aurrekontua egitea.
- Proiektuaren emaitzen, prozeduraren, egituraren eta baliabideen ebaluazioa finkatzea.



### 3. Metodologia

Bilaketa bibliografikoa burutzeko, PIO/PICO egitura jarraitu da lanean zehar eta egitura hau jarraitzeak zehaztutako helburuei erantzutea izan du xede (Ikusi 1go taula). Egitura honek honako galdera hau planteatzen du: Amarako osasun zentroan, osasun mentalaren unitatean jarraipena daramaten eta gaixotasunaren fase egonkorrean dauden 18-25 urte bitarteko pertsona eskizofrenikoek psikofarmakoen tratamenduarekiko atxikipena hobetzeko osasun hezkuntza.

#### 1. Taula: PIO/PICO egitura.

**P (Patient):** 18-25 urte bitartekoak diren eta Esquizofrenia gaixotasuna duten paziente egonkorrak.

**I (Intervention):** Osasun hezkuntza proiektua.

**O (Outcome):** Psikofarmakoen tratamenduarekiko atxikipena hobetzea.

Bilaketa aurrera eramateko PIO egituraren zati bakoitzari dagokion osasun zientzietako deskriptoreak, Descriptores en Ciencias de la Salud (DeCS), Medical Subject Headings (MeSH), hitz gakoak eta terminologia askea erabili dira. Bilaketa terminologia librea kontzeptu singular, plurala eta sinonimoekin osatu da. Erabiliak izan diren DeCS, MeSH, hitz gako eta terminologia libre gehiago jarri da PIO/PICO galderari erantzuna eman nahian (3. eranskina ikusi).

Proiektuaren helburu nagusiari erantzuteko, hainbat datu iturri erabili dira. Batetik, bilaketa bibliografikoa burutu da. Bilaketa 2022ko azaroaren 24tik urtarrila bitartean egin da, osasun arloko datu-base ezberdinak erabiliz: Pubmed, Dialnet, Medes eta Cuiden. Horiez gain, Biblioteca Virtual en Salud (BVS) metabilatzailea ere erabili da (ikusi 3 eta 4 eranskinak).

Termino ezberdinen arteko elkarketak AND eragile boolearraren bidez egin dira. Gainera, datu-base batzuetan emaitzak murrizteko eta zehatzagoak izateko iragazki ezberdinak erabili dira:

- Pubmed: urte-tartea eta testu osoa.
- Dialnet: urte-tartea.
- Medes: urte-tartea.

- Cuiden: urte-tartea eta artikuluak.
- BVSalud: urte-tartea eta testu osoa.

Bilaketa estrategikoa burutzean hainbat artikulu lortu ziren. Hauen aukeraketa burutu ahal izateko artikulu bakoitzari barneratze eta kanporatze irizpide berdinak aplikatu zitzaizkion (Ikusi 2. Taula).

2. **Taula:** Berrikusketa egiteko barneratze eta kanporatze irizpideak. **Iturria:** eginkizun propioa.

<b>BARNERATZE IRIZPIDEAK</b>	<b>KANPORATZE IRIZPIDEAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaixoei eskainitako psikoedukazioa aztertzen duten artikuluak</li> <li>• Ospitalizatuak ez dauden pazienteak barneratzen dituen artikuluak</li> <li>• Gaixotasunaren larriagotzea jasan duten pazienteak barneratzen dituen artikuluak</li> <li>• Azken 10 urtetako artikulua izatea</li> <li>• Testu osoa eskuragarri izatea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Psikoedukazioa familiari gidaturik dauden artikuluak</li> <li>• Larriagotze egoeran dauden pazienteak</li> <li>• Ospitaleratuak dauden pazienteak</li> <li>• 2012 aurrerako artikulua izatea</li> <li>• Testua dohainik eskuragarri ez izatea</li> </ul>

Bestalde, Euskadi nahiz Espainia mailako eta Osasunaren Munduko Erakundearen web-gune ofizialetan informazio gehigarria bilatu da. Donostiako Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko liburutegian, Eskizofreniaren inguruko 2 liburu lortu dira (5,6).

Osasun Hezkuntza Programa aurrera eramateko, Nafarroako Gobernuko “Manual de educación para la salud” eskuliburua erabili da. Jarduerak aurrera eraman ahal izateko eta materiala osatzeko, baliabide ezberdinez baliatu da (15).

## **4. Plangintza**

### **4.1.Xede taldeak lortu beharreko helburu pedagogikoak**

#### **4.1.1. Helburu nagusia**

Amarako osasun zentroan, osasun mentalaren unitatean jarraipena daramaten eta gaixotasunaren fase egonkorrean dauden 18-25 urte bitarteko pertsona eskizofrenikoek psikofarmakoen tratamenduarekiko duten atxikipena hobetzea da helburu nagusia.

#### **4.1.2. Bigarren mailako helburuak**

Amarako osasun zentroan, osasun mentalaren unitatean jarraipena daramaten eta gaixotasunaren fase egonkorrean dauden 18-25 urte bitarteko pertsona eskizofrenikoek hau lortuko dute:

1. Elkar ezagutzea eta proiektuaren inguruko informazioa jasoko dute.
2. Gaixotasunarekin loturiko bizipenak partekatuko dituzte.
3. Gaixotasunak erakusten dituen ezaugarriak ezagutuko dituzte
4. Gaixotasunarekiko dituzten beldurrak adieraziko dituzte.
5. Gaixotasunarekiko kontzientzia baduela erakutsiko dute.
6. Eskizofrenia gaixotasunaren definizioa azalduko dute.
7. Osasun mentalera zuzenduak dauden elkarteak ezagutuko dituzte.
8. Estigmari aurre egiteko estrategiak praktikan jarriko dituzte.
9. Estigmaren kontzeptua landuko dute.
10. Medikazioa hartzea eta gaixotasunaren hobetze prozesua erlazionaturik daudela ulertuko dute.
11. Medikazio antipsikotikoek eragin ditzaketen bigarren mailako sintomak izendatuko dituzte.
12. Medikazioarekiko dituzten kezkak adierazteko gaitasuna erakutsiko dute.
13. Gaixotasunak erakusten dituen eta medikazioak eragiten dituen sintomen artean desberdinketa egitea lortuko dute.
14. Medikazioa hartzea ez ahazteko estrategiak ikasiko dituzte.
15. Pilula-kaxa modu egokian erabiltzen dakiela erakutsiko dute.
16. Gaixotasunaren larriagotzea izateko arrisku faktoreak zeintzuk diren identifikatzea lortuko dute.
17. Drogek haien gaixotasunarekiko suposatzen duten arriskua ezagutuko dute.

18. Familia harreman on batek duen garrantzia identifikatzea.
19. Egoera desberdinen aurrean haren eta inguruko sentimenduak identifikatuko dituzte.
20. Erlaxazio teknikak ezagutuko dituzte.
21. Erlaxazio teknikak praktikan jartzeko gaitasuna erakutsiko dute.
22. Zer egin batean kontzentratzeko gaitasuna landuko dute.

#### **4.2. Metodologia pedagogikoak**

Osasunerako hezkuntzaren helburu nagusia, erabiltzaileek, osasun-profesionalek eskainitako irakaskuntza ezberdinak ikastea da. Motibazioa eta parte-hartzea osasun hezkuntzaren helburua gehien lortzen duten bi metodoak dira. Hau horrela izanik, irakaskuntza praktikoa funtsezkoa dela esan daiteke. Izan ere, erabiltzaileak haren hezkuntza-prozesuan parte hartzen du jarduerak egitearen bidez. Horiek egin aurretik ezarritako helbururen baten edo batzuen irismena badagoela edo egon daitekeela ikusiz hura burutzerat animatuko dute erabiltzailea. Ikasketa prozesua dinamiko eta onuragarria izan dadin zeinbait teknika metodologiko erabiltzen dira. OHeP (Osasun Hezkuntza Programa) honetan erabiliko diren metodo eta teknika motak ondorengoak dira (14).

- **Elkartze teknika:** Kontsultan edo ikaskuntzarako baliagarriak diren taldeetan klima egokiak lortzeko erabiltzen dira. Helburu hauek ditu: hezkuntza-prozesuaren hasieran, bakarka nahiz taldeka, harrera egitea eta kontratua egitea, prozesuaren amaieran agurra egitea, eta kontsulta edo saio bakoitzaren hasiera eta amaiera (15).
- **Gaitasunak garatzeko teknikak:** Pertsonari gaitasun zehatzak garatzen laguntzen diote, bakoitzaren bizitza egoeran jarduteko eta hartarako erabakitako aldaketak integratzeko (14).
  - **Adibidez:** pilula kaxaren prestaketa.
- **Erakuste teknikak:** Pertsonaren ezagupenak garatzen eta handitzen laguntzen diote, egoera sakondu, beste modu batera ikusi... Batez ere arlo kognitiboa lantzen dute (15).
  - **Adibidez:** “Brunoren istorioa” ariketa.

- **Trebetasunak garatzeko teknikak:** Pertsonari bere egoeran jarduteko eta erabakitako aldaketak sartzeko balio dioten trebetasun zehatzak garatzen laguntzen diote (15).
  - **Adibidez:** “Bizitza bezalako ibilbide latza” ariketa.
- **Analisi teknikak:** Pentsatzen laguntzen dute, baita beren konponbideak aurkitzen lagundu ere. Batez ere gaitasun kognitiboak lantzen dituzte (azterketarako, sintesirako, egoeren baloraziorako, etab.). Honez gain, arlo emozionala lantzen laguntzen du jarrerak, balioak eta sentimenduak lantzen lagunduz (15).
  - **Adibidez:** “Gezurtero” ariketa.
- **Ikerketa teknika:** funtsean, hezkuntza-jarduera baten hasieran eta eduki-multzo berri bat hastean erabiltzen dira. Taldeari bere abiapuntuak adierazten, antolatzen eta multzokatzen laguntzen diote: esperientziak, bizipenak eta alde zurreko ezagutzak (15).
  - **Adibidez:** “Kalte egiten banau, zertarako hartu” galdetegia.

Osasun zentroko sarreran kokaturik egongo den kartela sortuko da, non programaren datu nagusiak agertuko diren modu argi batean azaldurik (ikus 6. eranskina). Horrez gain, saioak hasi baino hilabete bat lehenago Amarako Osasun Mentaleko Zentroan esku orria informatibo multzoa banatuko zaie mediku psikiatra eta erizain bakoitzari, haien kontsultetan banatuak izan daitezzen (ikus 7. eranskina).

### 4.3. Jarduera pedagogikoak

#### 1. SAIOA | “Mundu berri baten mapa”

Helburua: 1.

Saioaren iraupena: 2 ordutako saioa.

Lehenengo saio honetarako proposaturiko jarduerak, eskizofrenia gaixotasuna pairatzen duten pertsonen bideraturiko OHeP parte hartuko duten erabiltzaileen eta proiektua aurrera eramango duten osasun agenteen arteko ezagutza abiatzeko nahiz proiektuaren ezagutzarako bideratuak izan dira. Hau erosotasunez, gogoz eta motibazioz hastea espero da. Hau horrela izan dadin, partehartzaileek proiektuarekiko erakusten duten konpromezu, inplikazio eta motibazioa ezinbestekoa izango da. Horretarako Hain itxaropenak ezagutzeko galdetegi bat prestatu da.

Lehen saiorako proposatutako jarduerak nahiz etxerako ariketak modu labur batean azaldu dira hurrengo taulen bidez (Ikusi 3. eta 4. taulak). Saioen ororen garapena zehaztasunez eta erabiliko diren material didaktikoak eranskinetan ikus daitezke azalduz (Ikusi 16. eranskina).

**3. Taula:** Lehen saioan landuko diren jarduerak (ikusi 8. eranskina). **Iturria:** eginkizun propioa.

JARDUERAK	AZALPENA	TEKNIKA	DENBORA	BALIABIDE MATERIALA
“Elkar ezagutuz”	Diana taldea nahiz langileak eta OHeP ezagutzea	Elkartze teknika	30´	- Pilota - Errotulagailua - Kartulina txuriak
“NI-taz zenbat dakizu?”	Galdetegia	Ikerketa teknika	20´	- Bolaluma - Arbela - Arbelarentzako errotulagailuak
<b>ATSEDENA 20´</b>				
“Nire gaixotasunarekin topatuz”	Gaixotasunaren nondik norakoak eta sintomak azalduko dira	Erakuste teknika	40´	- Proiektorea - Ordenagailua
“Brunoren istorioa”	Gaixotasunean murgilduko dira bideo baten bitartez	Erakuste teknika	10´+20´	- Ordenagailua - Proiektorea

**4. Taula:** lehen saioaren ondoren bidaliko diren etxerako ariketak. **Iturria:** eginkizun propioa.

JARDUERAK	AZALPENA	TEKNIKA	DENBORA	BALIABIDE MATERIALA
<b>Etxerako lanak</b>	Gaixotasunaren sintomatologiarekin zerikusia duen galdetegia	--	Etxean asteen zehar betetzeko	- Bolaluma - Galdetegia - dakarren orria

## 2. SAIOA | “Egun bat nire bizitzan”

Helburua: 2, 3, 4, 5 eta 6.

Saioaren iraupena: 2 ordutako saioa.

Bigarren saioa gaixotasuna ezagutzera bideratuko da. Hasiera batean gaixotasunak haien egunerokoan eragindako aldaketak aztertuko dira. Bigarrenik, bakoitzak dituen beldur eta ezjakintasunak argituko ditugu. Modu honetan, bakoitzaren bizipenak besteekin konpartituz, gainontzeko pertsonekin dituzten berdintasunak ikusteko aukera izango dute. Azkenik, gizartean gaixotasunari buruz zabaldu diren mitoak landu eta gezurtatuko dira (ikusi 5. Taula).

### 5. Taula: Bigarren saioan landuko diren jarduerak (Ikusi 9. eranskina). **Iturria:** eginkizun propioa.

JARDUERAK	AZALPENA	TEKNIKA	DENBOR A	BALIABIDE MATERIALA
<b>Laburpena</b>	Saioaren laburpena	--	5´	--
<b>“Aldaketa bizitzeko modu berri bat ikasteko aukera da”</b>	Egunerokotasunean nabaritu dituzten aldaketak ebaluatzen duen galdetegia	Ikerketa teknika	15´	- Galdetegia dakarren orria. - Bolaluma
<b>“Egunerokoa”</b>	Orain arteko haien esperientzia idatziko du istorio asmatu baten bidez	Hausnarketa teknika: istorioa idaztea	30´	- Folioak - Bolaluma
<b>ATSEDENA 20´</b>				
<b>“Beldurrik gabe ez dago pertsona ausartik”</b>	Gaixotasunarekiko dituzten beldurrak adieraziko dira	Ikerketa teknika	30´+ 40´	- Koloretako Post-it - Bolaluma - Beirazko ontzia

### 3. SAIOA | “Estigmari agur esanez”

Helburua: 7, 8 eta 9.

Saioaren iraupena: 2h 5´ko saioa

Saio hau gizartean zabaldurik dagoen gaixotasunaren estigmari zuzendua dago. Erabiltzaileek haien beldur edo noizbait entzundako estigmak azaleratuko dituzte. Gizartean zabalduriko gaia izanik, talde osoaren artean landuko da, modu honetan gaixotasuna normaltasun eta onartze aldera eramatea nahi da. Estigmari buruzko bideo baten bidez, honen ezagutza bultzatzea saiatuko da, hala nola, haiengan izan behar duen garrantzia gutxitzea. Ondoren, guztien artean, hau gutxiesteko estrategiak erabiliz, taldekako “roll playing”-ak jarriko dira martxan (ikusi 6. Taula).

**6. Taula:** Hirugarren saioan landuko diren jarduerak (Ikusi 10. eranskina). **Iturria:** eginkizun propioa.

JARDUERAK	AZALPENA	TEKNIKA	DENBORA	BALIABIDE MATERIALA
<b>Laburpena</b>	Saioaren laburpena	--	5´	--
<b>“Esquizofrenia, luchando contra el estigma”</b>	Bideoaren bidez estigmaren kontzeptua landuko da eta elkarrean informazioa eskainiko zaie	Erakuste teknika	10+20´	- Proietorea - Ordenagailua
<b>“Gezurtero”</b>	Noizbait entzundako mito edo estigmak idatziko dituzte	Analisi teknika	30´	- Bolaluma - Folioak - Arbela - Arbelarentzako errotulagailuak
<b>ATSEDENA 20´</b>				
<b>“Gizartearen parte gara!”</b>	Estigma nahiz mitoei aurre egiteko estrategiak erakutsiko zaizkie	Trebetasunak garatzeko teknika	60´	- Arbelarentzako errotulagailuak - Arbela



#### 4. SAIOA | “Medikazioa hartuko dut”

Helburuak: 10, 11 eta 12.

Saioaren iraupena: 2 ordu eta 5 minutuko saioa.

Laugarren saio honetan medikazioaren munduan murgiltzen hasiko dira. Medikazioari buruzko ezjakintasun eta beldurrek hau alde batera uzteko arrazoi nagusia izanik lantzea erabaki da. Honek eragiten dituen onurak azalduko dira eta haien artean ezberdintzea lortuko da. Medikazioarekiko dituzten beldur eta mitoak azaleratuko dira. Azkenik, hauekiko duten atxikipena neurtuko duen galdetegia pasako zaie (ikusi 7. Taula).

7. **Taula:** Laugarren saioan landuko diren jarduerak (Ikusi 11. Eranskina). **Iturria:** eginkizun propioa.

JARDUERAK	AZALPENA	TEKNIKA	DENBORA	BALIABIDE MATERIALA
<b>Laburpena</b>	Saioaren laburpena	--	5´	--
<b>“Irtenbide bakarra”</b>	Medikazioari buruzko informazioa eskainiko zaie	Erakuste teknika	45´	- Proiektorea - Ordenagailua
<b>“Kalte egiten banau, zertarako hartu?”</b>	Azken urteetan medikazioarekin izan duten esperientzia fitxa baten bidez adierazi eta eztabaidatuko dute	Ikerketa teknika	45´	- Fitxa - Bolaluma - Arbelarentzako errotulagailuak - Arbela
<b>ATSEDENA 20´</b>				
<b>“Nolako atxikipena diot nire medikazioari?”</b>	Tratamenduarekin zerikusia duen galdetegia	Ikerketa teknika	30´	- Bolaluma - Galdetegia dakarren

## 5. SAIOA | “Zein da nire benetako etsaia”

Helburuak: 13, 14, eta 15.

Saioaren iraupena: 2 ordu eta 5 minutuko saioa.

Aurreko saioari jarraipena emanez, tratamenduaren gaiari eutsiko zaio berriro. Honetan gaixotasun nahiz medikazioak eragiten dituen sintomen artean ezberdintzeko ariketa beteko dute. Izan ere, hauen arteko ezberdintasuna ez dute modu egokian barneratuta. Bigarrenik, medikazioa hartzea errazten duten estrategiak ikasteko garaia iritsiko da. Azkenik, banatuko zaien pilula kaxa batean honen erabilpena jarriko da praktikan (ikusi 8. Taula).

**8. Taula:** Bostgarren saioan landuko diren jarduerak (Ikusi 12. eranskina). **Iturria:** eginkizun propioa.

JARDUERAK	AZALPENA	TEKNIKA	DENBORA	BALIABIDE MATERIALA
<b>Laburpena</b>	Saioaren laburpena	--	5´	--
<b>“Zein da zein”?</b>	Gaixotasunaren sintomak medikazioaren bigarren mailako ondorioetatik ezberdinduko dira	Erakuste teknika	40´	- Fitxa - Bolaluma - Arbelarentzako errotulagailuak - Arbela
<b>“Din Don! Medikazioa hartzeko ordua!”</b>	Medikazioa hartzea ez ahazteko estrategiak eskainiko dira	Erakuste teknika	45´	- Proiektorea - Ordenagailua
<b>ATSEDENA 20´</b>				
<b>“Praktikan jartzen”</b>	Aurretik aipatutako estrategia bat jarriko dira praktikan	Gaitasunak garatzeko teknika	35´	- Pilula kaxak - Kolore ezberdinetako kanikak.

## 6. SAIOA | “Ospitaleratzea ez da irtenbidea”

Helburuak: 16 eta 17.

Saioaren iraupena: 2 ordu eta 5 minutu.

Drogen kontsumoa gaixotasunaren larriagotzearen arrazoi nagusietakoa izanik, gai honi eskainiko zaio saio osoa. Garrantzizko gaia delarik, honi buruz kontzientzia bereganatzea du helburu saio honek. Horretarako bidez, galdetegiz eta kasu klinikoen erabileraz baliatuko dira osasun agenteak (ikusi 9. taula).

**9. Taula:** Seigarren saioan landuko diren jarduerak (Ikusi 13. Eranskina). **Iturria:** eginkizun propioa.

JARDUERAK	AZALPENA	TEKNIKA	DENBORA	BALIABIDE MATERIALA
<b>Laburpena</b>	Saioaren laburpena	--	5´	--
<b>“Nolakoa izan da esperientzia”</b>	Medikazioa hartzeko estrategia erabiltzearen esperientzia azalduko dute.	Erakuste teknika	10´	--
<b>“Berrerortzea ur handitako bidea”</b>	Eskizofrenia gaixotasuna duen pertsona baten esperientzia kontatzen duen bideoa ikusiko da.	Trebetasuna garatzeko teknika	20´+ 30´	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Proiektorea</li> <li>- Ordenagailua</li> <li>- Arbela</li> <li>- Arbelarentzako errotulagailuak</li> </ul>
<b>“Baina zein da nik drogekin dudan erlazioa?”</b>	Espainiako gobernuak azaleratutako drogen kontsumoei buruzko galdetegia pasako zaie.	Ikerketa teknika	30´	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Fitxa</li> <li>- Bolaluma</li> </ul>
<b>ATSEDENA 20´</b>				
<b>“Hausnartuz”</b>	Ospitalean ingresua behar izan duten 3 kasu kliniko	Erakuste		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordenagailua</li> <li>- Proiektorea</li> <li>- Kasu klinikoak</li> </ul>

	aztertuko ditugu guztien artean	teknika	30´	orrian - Markagailuak
--	---------------------------------	---------	-----	--------------------------

## 7. SAIOA | “Txangoa”

Helburua: 18 eta 19.

Txangoaren iraupena: 3 ordu.

Zazpigarren saio hau ez da osasun zentroan aurrera eramango. Talde dianako kide bakoitzaren zaintzaile nagusia edo familia-ko partaide batekin batera etorriko dira elkartze puntura. Diana taldeak bizitzen duen egoeraren eraginez familiarteko harremanek jasaten dute ondorioa. Hau horrela izanik, txango honetan guztiek hartuko dute parte, bai gaixoei eta bai haien familiei. Erronka mendi itzuli bat egitea izango da. Honetan mendiaren zailtasunak gaintitu beharko dituzte haien arteko laguntza jasoz. Horretarako hitz egitea eta elkarlana bultzatuko da (ikusi 10. Taula).

**10. Taula:** Zazpigarren saioan landuko diren jarduerak (Ikusi 14. eranskina). **Iturria:** eginkizun propioa.

JARDUERA	AZALPENA	TEKNIKA	DENBORA	BALIABIDE MATERIALA
<b>Laburpena</b>	Saioaren laburpena	--	5´	--
<b>“Bizitza bezalako ibilbide latza”</b>	Ulia mendian zehar ibilbidea egingo da.	Trebetasuna k garatzeko teknika	3h	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Motxila</li> <li>- Kirola egiteko zapatilak</li> <li>- Hamaiketakoa</li> <li>- Ur botila</li> <li>- Kirola egiteko arropa.</li> </ul>

## 8. SAIOA | “Antsietatearen kontra”

Helburuak: 20, 21 eta 22.

Saioaren iraupena: 2 ordu 50 minutuko saioa.

Urduritasuna eta antsietatea gaixotasuna larriagotze egoeran sartzeko arrazoi nagusietakoak dira. Hau horrela izanik, horrelakoak saihestea ezinbestekoa bihurtzen da (16). Beraz, saio honetan antsietatea saihesteko ariketak jarriko dira martxan. Hala nola, hainbat estrategia eratsiko dira, ondoren hauek aplikatzeko ariketak egingo dira (ikusi 11. taula).

Azken saioa izanik, 45 minutu hartuko dira hamaiketako bat egiteko (nahi dutenean joateko aukera izango dute). Osasun agenteek eramandako edari nahiz jakiak eskainiko zaizkie eta haien artean lasaitasunez hitz egiteko aukera izango dute.

**11. Taula:** Zortzigarren saioan landuko diren jarduerak (Ikusi 15. eranskina). **Iturria:** eginkizun propioa.

JARDUERA	AZALPENA	TEKNIKA	DENBORA	BALIABIDE MATERIALAK
<b>Laburpena</b>	Saioaren laburpena	--	5´	--
<b>“Garunaren misterioak”</b>	Antsietateari aurre egiteko estrategiak azalduko dira	Trebetasunak garatzeko teknika	45´	- Proiektorea
<b>ATSEDENA 20´</b>				
<b>“Eskulanetan jai-jai”</b>	Eskulana	Trebetasunak garatzeko teknika	60´	- Kolorezko bolatxo txikiak - Figura ezberdinez osatutako liburuxka bat - Pintzak - Eskulana gogortzeko berotasun xafla - Eskulana

				giltzatakhoa bihurtzeko materiala
<b>“Lo EZ hartzeko unea”</b>	Audio liburu baten laguntzaz diana taldeak erlaxatzeko teknika jarriko du martxan.	Gaitasunak garatzeko teknika	15´	- Proiektorea - Esterilak
<b>ATSEDENA 10´</b>				
<b>“Ez da agurra, gero arte bat baizik”</b>	Hamaiketakoa	--	45´	- Kafeinarik nahiz alkoholik gabeko edaria - Jakiak - Plastikozko baso nahiz platerak

**5. Baliabideak** (kronograma, ordutegia, datak, lekua, jarduerak, osasun agenteak, baliabideak eta kostua)

**12. Taula:** Proiektua aurrera eramateko beharrezkoak diren baliabideak. **Iturria:** eginkizun propioa.

	<b>DATAK</b>	<b>LEKUA</b>	<b>HELBURUAK</b>	<b>JARDUERAK</b>	<b>DENBORA</b>	<b>OSASUN</b>	<b>BALIABIDEAK</b>	<b>KOSTUA</b>
	<b>ORDUTEGIA</b>					<b>AGENTEAK</b>		
<b>1</b> <b>SAIOA</b>	2023/04/04	Amara	1	“Elkar ezagutuz”	30´	- 2 erizain	- Pilota	<b>Baliabide materialak</b>
	Asteartea	Berriko		“NI-taz zenbat dakizu”	20´		- Errotulagailuak	
	10:00-12:20	osasun zentroa		“Nire gaixotasunarekin topatuz”	40´		- Kartulina txuriak	
				“Brunoren istorioa”	30´		- Bolaluma	
							- Arbelarentzako errotulagailuak	Pilota: 5€
							- Folioak	Errotulagailuak: 7€
								Kartulina txuriak 6,80€
								2 bolaluma pakete: 10€
<b>2</b> <b>SAIOA</b>	2023/04/06	Amara	2, 3, 4, 5 eta 6	“Aldaketa bizitzeko modu berri bat ikasteko aukera da”	15´	- 2 erizain - Psikologoa	- Folioak	Arbelarentzako errotulagailuak: 4€
	Osteguna	Berriko		“Egunerokoa”	30´		- Bolaluma	
	10:00-12:20	osasun zentroa			50´		- Koloretako Post-It-ak	
							- Beirazko ontzia	Koloretako Post-It: 5,49€

				“Beldurrik gabe ez dago pertsona ausartik”				Beirazko ontzia: 9,99€ 12 pilula kaxa: 95,88€
<b>3 SAIOA</b>	2023/04/11 Asteartea 10:00-12:25	Amara Berriko osasun zentroa	7, 8 eta 9	“Esquizofrenia, luchando contra el estigma” “Gezurtero”  “Gizartearen parte gara!”	30´ 30´ 60´	- 2 erizain  - AGIFES-eko borondea	- Folioak - Bolaluma - Arbelarentzako errotulagailuak	2 kit: kolore ezberdinetako kanika txikiak: 14,38€ 14 markagailu: 16,44€ 4 kit eskulana egiteko materiala: 104€
<b>4 SAIOA</b>	2023/04/13 Osteguna 10:00-12:25	Amara Berriko osasun zentroa	10, 11 eta 12	“Irtenbide bakarra” “Kalte egiten banau, zertarako hartu?” “Nolako atxikipena diot nire medikazioari?”	45´ 45´ 30´	- 2 erizain	- Folioak - Bolaluma - Arbelarentzako errotulagailuak	Berotasun xafla txikia: 26€ Esterilak: 50,28€ 2 botila kas laranja + bi botila kas limoi: 11,40 3 patata poltsa: 5,82€



								5 urdaiazpiko pakete: 5€
<b>5 SAIOA</b>	2023/04/18 Asteartea 10:00-12:25	Amara Berriko osasun zentroa	13, 14 eta 15	“Zein da zein”  “Din Don! Medikazioa hartzeko ordua”  Praktikan jartzen”	40´  45´  35´	- 2 erizain	- Folioak - Bolaluma - Arbelarentzako errotulagailuak - Pilula kaxak - Kolore ezberdinetako kanikak.	5 gazta pakete: 5€ 4 pakete moldezko ogia: 6,36€
<b>6 SAIOA</b>	2023/04/20 Osteguna 10:00-12:25	Amara Berriko osasun zentroa	16 eta 17	“Nolakoa izan da esperientzia” “Berrerortzea ur handitako bidea” “Baina zein da nik drogekin dudan erlazioa” “Hausnartuz”	10´  50´  30´  30´	- 2 erizain	- Arbelarentzako errotulagailuak - Folioak - Bolaluma - Markagailuak	<b>Baliabide materialen kostua guztira: 398,82€</b>
<b>7 SAIOA</b>	2023/04/25 Asteartea 9:00-12:00	Amara Berriko osasun zentroa	18 eta 19	“Bizitza bezalako ibilbide latza”	3ordu	- 2 erizain	--	<b>Giza baliabideak</b>

